

## Bultzada tokiko prentsari

2003 otsaila/febrero/février  
Nº 131 zenb.

**La Jornada sobre publicidad en euskera y medios locales pone de manifiesto el vigor de la prensa de cercanía, y la necesidad de que las publicaciones se asocien para atraer anunciantes**

**E**usko Ikaskuntzaren Komunikabideak Sailak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak antolatutako, *Euskarazko publizitatea eta herri komunikabideak* Jardunaldia egin zen urtarilaren 17an Eusko Ikaskuntzaren Bilboko egoitzan. Tokiko agerikari eta giro orokorreko prentsaren argitaratzaileak, ikasleak eta publizitate agentzien ordezkariak, berrogeita hamarretik gora, bildu ziren ekitaldi hartara. Dagozkion txostenak eta eztabaidak *Mediatika*, Komunikabideak Saileko Koadernoaren hurrengo ale batean argitaratzekoak dira.

Euskaraz egindako publizitateaz ia ezin azterlanik ez denez, ekimen aitzindaria dugu Jardunaldi hau eta euskarazko tokiko prentsaren publizitatea sendotzen lagundu beharko du.

### Estrategia bikoitza

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak Euskal Herriko 36 aldizkari biltzen ditu, astero, hamabostero edo hilabetero argitaratzen direnak, hilabetean 160.000 ale kaleratu eta bidalketa pertsonalizatuaren bidez banatzen direlarik. Agerikari erdia baino gehiago, bai eta irakurleak ere, Gipuzkoan daude. Diru-laguntzak eta

publizitate sarrerak dira horien finantzabidea, aldizkariok espazio osoaren herena uzten baitute publizitaterako.

Jardunaldi hartan agerian geratu zen aldizkariak formatuak bateratzen joan beharko dutela, iragarki jartzaileek beren diseinuak zuzen aplikatu ahal ditzaten moldaketan aritu beharrik gabe.

Bestalde, aldizkari federatu guztietarako publizitate komuna erakartzearren, gomendagarria da kultura edo kirol gaien inguruko koaderno monografikoak elkarrekin argitaratzea, tarteko gisa, Katalunian azken urte eta erdian emaitza bikainez egiten den bezala, Félix Noguera, Edicions Intercomarcals-ekoak adierazi zuenez.

### Txostenak eta eztabaidak

Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko euskara zuzendariak eta Patxi Goenaga, Eusko Jauriaritzaren Hizkuntz Politikako Sailburuordeak inauguratu zuten *Euskarazko publizitatea eta herri komunikabideak* Jardunaldia. Antolatzaileen izenean, Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariorde Aingeru Zabalak eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko zuzendari Jasone Mendizabalek hitz egin zuten.

Sarrerako txosten gisa, Idoia Camacho, Informazio Zientzietan doktorea tokiko informazioaz eta tokiko prentsaz ulertzen denaz mintzatu zen. Ondoren, euskarazko publizitatearen merkatua, gure esparruko marketinaren gakoak eta horren muga agerikoenak izan zituen mintzagai Joseba Andoni Etxebarria, EHuko irakasleak.

Arratsaldeko ekitaldian, Félix Noguera, Kataluniako *Regio 7*ko

zuzendari kudeatzaileak iragarki jartzaile handien gestioan izandako esperientziak hitz egin zuen, eta horren ondoren *Goienako* Mikel Irizarrek moderaturiko eztabaida bizia sortu zen. Inigo Martinek *Euskadi Gaztea* irrati katean izandako esperientzia azaldu zuen; Amaia Paniagua, Trup publizitatearen gestiorako enpresakoak euskarazko publizitate merkatuak eskaintzen dituen aukera handiez hitz egin zuen, eta *Argia* aldizkariako Joxe Mari Irazustak administrazio publikoek euskal medioetan sartzen duten publizitate kopuru urria deitoratu zuen.

## Publicidad en euskera

**C**omo ha consignado Joxemari Muxika en un estudio publicado en el último número de *Mediatika. Cuaderno de Medios de Comunicación* de Eusko Ikaskuntza, existe un gran dinamismo en el campo de la prensa en euskera. Así lo demuestra el hecho de que cerca de 237 publicaciones hayan visto la luz entre 1960 y 1999, de las cuales 179 seguían editándose en la última fecha. Sin embargo, su punto más débil está en el mercado publicitario, donde reside precisamente la fortaleza de toda empresa periodística. La Jornada desarrollada en Bilbao debe contribuir a que se den los pasos necesarios para un trabajo coordinado que atraiga a los anunciantes. Que es tanto como decir, asegurar el porvenir para las revistas euskaldunes.



## El nuevo equipo presidencial se presenta ante los responsables institucionales

**E**l día 10 de enero, el equipo presidencial de Eusko Ikaskuntza elegido en la Junta General del 28 de diciembre fue recibido por el lehendakari Juan José Ibarretxe en la sede de la Presidencia del Gobierno Vasco en Vitoria-Gasteiz. Posteriormente a esta recepción, el Comité Ejecutivo celebró su primera reunión ordinaria en las oficinas de Eusko Ikaskuntza en la capital alavesa. Esta visita protocolaria se enmarca en la agenda de contactos que Javier Retegi y su equipo están manteniendo con autoridades políticas y culturales, así como con los socios responsables de las distintas áreas de actividad de Eusko Ikaskuntza.

Dentro de este calendario de contactos, el 24 de enero el nuevo presidente fue recibido por la primera autoridad de la Comunidad Foral de Navarra, Miguel Sanz, y días antes visitó al Diputado General de Bizkaia, Josu Bergara.

En lo que a la actividad interna se refiere, Javier Retegi viene despachando con los presidentes de las distintas Secciones Científicas, con los responsables de los principales programas en curso, con los rectores de las Fundaciones de Eusko Ikaskuntza, y con diversos socios implicados en las actividades de la Sociedad.



### Réception

La nouvelle équipe présidentielle a été reçue par le lehendakari Ibarretxe, au cours des contacts qu'elle maintient avec des représentants publics et des responsables d'Eusko Ikaskuntza.



## Euskararentzat lur berriak

**Euskonews & Media**

Nº 201

Euskonews & Media se encamina hacia su quinto año de vida y suma ya más de 200 números publicados.

**E**uskonews & Media aldizkari elektronikoa 201. alera iritsi da, benetako marka dena era horretako Euskal Herriko agerkariarentzat. Euskara Administrazio publikoetan da otsaileko monografiko honen mintzagaia. Lehen elkarrizketan, Patxi Goenaga Eusko Jaurilaritzako Politika Sailburuordearen hitzak bildu ditu Ismael Diaz de Mendibil kazetariak. Artikulu nagusiei dagokienez, Jokin Azkue egungo euskarazko alfabetatzearen erre-

alitateaz dihardu, eta Erramun Osak euskara irakaskuntzan hartu du mintzagai. José Ramon Elorzak, bere aldetik, euskararen erabilera aztertzen du gizartearen eta lan alorrean.

Orobat, Miren Mateoren azterlan interesgarri bat eragin du euskararen bilakabide soziolinguistikoak. Eguzki Urteaga eta Aingeru Epaltza, bestalde, Iparraldean eta Nafarroan bizi duten egoeraz arduratu dira hurrenez hurren. Azkenik, Kike Amonarrizek bere ikusmoldea eskaintzen digu hizkuntzalaritzaren eremutik, eta Andrés Urrutiak berea ematen du legeriarenetik.

## Donostia galardona a Imanol Olaizola

**E**l Socio de Honor de Eusko Ikaskuntza Imanol Olaizola recibió el pasado 19 de enero la Medalla al Mérito Ciudadano de San Sebastián de manos de su alcalde Odón Elorza. Con este galardón, la capital guipuzcoana ha querido rendir tributo a la labor desarrollada por Imanol Olaizola a lo largo de los años en el ámbito cultural donostiarra en la promoción de numerosos festivales musicales, como el de jazz o la Semana de Órgano y como uno de los fundadores de la Orquesta Sinfónica de Euskadi.

Imanol Olaizola fue Director de Cultura del Gobierno Vasco e impulsor activo desde 1974 de Eusko Ikaskuntza. Sigue vinculado íntimamente a la vida cultural vasca.



## Hitzarmenak Convenios

### Antropología en Treviño

**U**n equipo formado por cinco investigadores de acreditada experiencia ha sido becado para la realización de un estudio antropológico en Treviño. En el marco del Convenio de colaboración entre ese enclave burgalés y Eusko Ikaskuntza, se han otorgado tres becas de 3.600 euros cada una a Antxon Aguirre Sorondo, Juan José Galdós López, Luis Santiago Garamendi Pérez,

José Antonio González Salazar e Isidro Sáenz de Urturi.

Su propuesta de investigación se estructura en tres apartados: agricultura tradicional y pesca fluvial, religiosidad popular, cuentos y leyendas, y fiestas y oficios tradicionales en Treviño. Disponen de seis meses para efectuar el trabajo.



## Livre sur la critique littéraire

**S**ous le titre *La critique basque, aujourd'hui* le numéro 15 de *Oihenart*, Cahiers de Langue et Littérature, recueille les huit conférences présentées lors des 15<sup>es</sup> Journées sur la Critique Littéraire en Langue Basque célébrées à Vitoria-Gasteiz en l'an 2000 dans le but d'examiner la critique littéraire actuelle et son évolution.

Des professeurs de différentes universités de tout le Pays Basque présentent leurs apports structurés en deux parties: la première, *L'enseignement de la littérature et de la critique dans le milieu basque*, réunit des articles

sur l'évolution de l'enseignement de la littérature basque et des études académiques la concernant.



Dans la seconde partie, *Les recherches universitaires sur différents genres ou formes littéraires*, cinq spécialistes font un diagnostic sur l'actualité de la recherche académique des divers genres littéraires (essai, poésie, roman, théâtre, littérature pour enfants et littérature pour les jeunes).

Le livre est publié intégralement en trois langues: basque, français et espagnol.

### La crítica vasca, hoy

Recoge ocho estudios sobre la actual crítica literaria y su evolución.

## Hitzarmena Berarekin

Sixto Jiménez y Iosu Goia

firman el Convenio entre Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Bera.

**U**rtarrilaren 27an, Iosu Goia Etxeberria Berako alkateak eta Sixto Jiménez Nafarroako lehendakariordeak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Eusko Ikaskuntzaren lehena 2003. urte honetan. Bera 3.500 biztanleko herria da, Nafarroako Mendialdeko Bortziri eskualdean.

Berarekin batera, Lesaka, Igan-tzi, Arantza eta Etxalar herriek osatzen

dute eskualdea. Nafarroako herri hau Barojatarren leinuari mamiki loturik dago: toponimoetatik (hala nola Altzate auzoa, *Jaun de Alzate* obraren irakurketa garaizana) Itzea etxea den Alexandria txiki horretaraino, edo bertako kanposantuak daukan Julio Caro Barojaren hilobiraino. Kultura eta kirol azpiegitura egokien jabe, elkarte dinamika bizia du herri honek.



## Jardunaldiak Jornadas

### Jornada sobre proyética

**L**as localidades de Bidart y Donostia albergaron los días 30 y 31 de enero las Jornadas de Proyética organizadas por Eusko Ikaskuntza, ERALAN-Centro para la renovación y la transformación de las organizaciones, en colaboración con IUT de Baiona-Sociedad Europea de Proyética. El tema a debate fue la gestión del conocimiento en las actividades organizadas por proyecto, tanto a nivel individual como colectivo, y se desarrolló mediante debates a partir de unos textos-marco.

### Etxebizitza Bilbon

**E**usko Ikaskuntzak eta Bilboko Udaleko kultura arloko Bidebarrieta Kulturaguneak Bilbori buruzko VIII. Symposium-erako deia zabaltzen dute, martxoaren 25 eta 26rako, Bidebarrietaren egoitzan. Hona aurtengo programaren ardatza: "Etxebizitza Bilbon: hiriarren sorreratik gaurko egunera arte". Bilboko etxebizitzaren aztergaia ikertu eta hartaz gogoeta egitea da helburua: auzoen araberako tipologia soziala historian zehar, etxebizitzaren eta biztanleen arteko erlazioa, etxebizitzaren arazoa konpontzeko udalak buruturiko ekimenak, etab.



## Bekak - Becas - Bourses

### Profesor visitante en Oxford



**E**usko Ikaskuntza ha abierto una nueva opción para un profesor invitado en la Universidad de Oxford adscrito al St Anthony's College. Puede participar en la convocatoria cualquier miembro de la comunidad científica interesado en realizar una investigación en cualquiera de las siguientes áreas: Ciencias Sociales, Historia Moderna y Contemporánea, Antropología y Derecho, particularmente relativo a las relaciones internacionales. Se valorará a los candidatos que ofrezcan un proyecto de trabajo de mayor interés y con proyección para la organización del correspondiente "workshop".

El tiempo de estancia será determinado en la solicitud, optando entre dos modalidades: curso académico completo en la Universidad de Oxford, o estancia corta (los periodos de Michaelmas Term o Hilary Term y Trinity Term). La retribución ascenderá a 2.404 euros mensuales. El plazo de presentación de la solicitud y la memoria, que deberán ser redactados en inglés, finaliza el 15 de marzo. Los candidatos pueden recoger los impresos en las oficinas de la Sociedad o a través de la web:

[www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org).

### Bourses Apraiz et Zumalabe 2003

**L**es disciplines correspondant à la convocation de la Bourse Angel Apraiz pour l'année 2003 concernent les Arts Plastiques et Monumentaux, la cinématographie et la Musique, alors que la Bourse Agustin Zumalabe encouragera les recherches en Sciences Physico-Chimie et Mathématiques, Sciences Médica-



les, Sciences Naturelles, Education et Folklore.

Pour opter à l'une de ces deux bourses, les personnes intéressées doivent présenter un mémoire du travail projeté et leur curriculum vitae avant le 28 février. Les bourses ont une durée maximum d'un an et leur dotation économique se monte à 4.600 euros.

### Kataluniarako beka

**E**usko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek aurren ere ikerketarako beka bana ematen dute. Beka hau Kataluniako eta Euskal Herriko kulturaren alderdi zehatz batez interesaturiko ikertzaile gazteei zuzentzen zaie. Bi kulturen arteko konparaziozko azterlanak aurkeztuko dituzten proiektuek izango dute lehentasuna.



Eusko Ikaskuntzak deituriko bekaren zenbatekoa 3.600 eurokoa da, eta katalan eledu eskual-

deren batean egin beharreko hiru hilabeteko egonaldiaren gastuak hartzen ditu. Hautagaiek 1990-1999 bitarteko urteetan, biak barne, unibertsitateko fakultateetan edo goi irakaskuntza zentroetan lizentziatuak edo graduatuak izan beharko dute.

Apirilaren 30ean amaitzen da dokumentazioa jasotzeko epea. Ikus Eusko Ikaskuntzaren,

[www.eusko-ikaskuntza.org](http://www.eusko-ikaskuntza.org)

## Eusko Ikaskuntza - Euskadiko Kutxa Saria

**Z**abaldurik dago Curriculum vitae gailenari ematekoa den Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren X. ekitaldirako hautagaiak jasotzeko epea. Humanitate, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien eremuan diharduten ikertzaile, zientzialari eta kultura alorreko pertsona ospetsuak izan daitezke hautagai, beren ikerketa jardura Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean edo Iparraldeko Euskal Herriko hiru lurralde historikoetako batean burutzen duten bitartean.

Sarituko den pertsonaren obra orokorrak Euskal Herriaren kultura garapena modu eraginkorrean bultzatu beharko zuen. Interesatuak berak, unibertsitateko erakundeek edo departamentuek edo zientzia zein kultura erakundeek aurkeztu ahal izango dituzte hartarako kandidaturak.

18.000 euroko sari bakkarra emango da. Apirilaren 30ean amaituko da kandidaturak aurkezteko epea.

### Beka deialdiak bulegoetarako

**H**elburua: Internet bidezko ikastaro berri baterako merkatu-ikerketa bat burutzea.

**Hautagaien baldintzak:** Artearen Historian Lizentziaduna izatea (Gasteizko bulegorako). Zuzenbidean Lizentziaduna izatea (Donostiako bulegorako). EAEko bi hizkuntzak eta ingelesa ondo menderatzea. Informatikako ezagutzak (Word, Access, Internet, Dreamweaver).

**Beken iraupen eta kopurua:** Beka bakoitzaren iraupena 3 hilabetekoa izango da eta kopuru gordina 2.163,64 Eurokoa.

**Dokumentazioaren aurkezpena:** Interesatuak bere curriculum bidali behar du Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundaziora (Miramar Jauregia, Miracocha, 48, 20007 Donostia) 2003ko otsailaren 20 baino lehen.

### Proyectos transfronterizos

**C**omo cada año, Eusko Ikaskuntza presentará diversos proyectos a los fondos de cooperación transfronteriza Euskadi-Aquitania y Navarra-Aquitania, financiados por la Unión Europea para el ejercicio 2003.

Los socios que lo deseen pueden participar con sus iniciativas a través de Eusko Ikaskuntza, siempre que se ajusten a las dos condiciones de la convocatoria:

1.- En el proyecto presentado debe estar implicada al menos una entidad de Iparralde.

2.- El objeto de la propuesta ha de poseer un carácter transfronterizo.

El plazo de admisión de proyectos a los fondos de cooperación transfronterizos finaliza el día 30 de abril.

### Fonds de coopération

Les propositions pour accéder aux fonds de coopération transfrontaliers sont admises jusqu'au 30 avril.

**E**ikaskuntza  
formación vía internet

### Cursos por módulos

**L**a Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza ha abierto la matrícula para la realización de cuatro cursos por módulos. El plazo termina el próximo 28 de febrero.

Para los alumnos de la UPV/EHU que realicen módulos dentro de estos cursos, se reserva la posibilidad de que disfruten de créditos de libre elección.

**MICI:** Máster en Derecho del Comercio Internacional

**KD:** Curso de Periodismo Digital

**JAKINET:** Curso de Estudios Vascos / Eusko Ikasgaietan Ikastaroa

**FIME:** Curso sobre los Mercados Financieros

Información e inscripciones:

<http://www.asmoz.org/>

Comunicaciones por correo electrónico

[asmoz@asmoz.org](mailto:asmoz@asmoz.org).

EUSKO  
IKASKUNTZA

## Euskara eta Administrazioa

**E**uskal Autonomia Erkidegoan 1982ko azaroaren 24an onartutako Euskararen Erabilpena Arauzko-tzeko Oinarriko Legeak euskal herritar guztiei Administrazioarekin eta Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein organo edo erakunderekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea aitortzen die, bai ahoz eta bai idatziz.



Jon Koldobika  
Urrutia Mingo

HAEko  
zuzendaria

Zentzu honetan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak hizkuntza normalizazioari heltzen dio bere V. Tituluan. Hori dela eta, Eusko Jaurilaritzak hainbat bider garatu du aipatutako Legea, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen 86/1997 Dekretua indarrean dagoelarik.

Alor ezberdinetako euskararen normalkuntza prozesuei dago-kienez, Eusko Jaurilaritzak hainbat arau onartu ditu azken 20 urteotan. Esate baterako, Irakaskuntza arloan indarrean dagoen araua 47/1993 Dekretua da, eta Ertzaintzako azken araua, 30/1998 Dekretua.

Hala ere, ezin dugu ahaztu euskal abertzaleak ez diren alderdi politikoak, euskararen oso aldekoak

ez direnak, oztopo ikaragarriak ipini eta ipiniko dituztela. Horren adierazgarri, Eusko Legebiltzarreko Talde Popularrak Funtzio Publikoari buruzko Legearen V. Titulua aldatzeko 1994. urtean eta 2000. urtean (urte honetan birritan) egin zituen ahaleginak aztertu besterik ez dago.

Beste alor batekin jarraituz, 2001. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioa hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen 117/2001 Dekretua onartu zen. Alabaina, Dekretu honen aplikazio esparruan ofizialak, laguntzaileak, agente judizialak eta auzitegiko medikuak bakarrik sartzen dira, epaileak, magistratuak, epaileen idazkariak eta fiskalak transferituta ez baitaude. Horretaz gain, Madrileko gobernuak aipatutako Dekretuaren aurkako helegite bat Konstituzio Auzitegiaren aurrean aurkeztu duela

**«Los funcionarios que han sido euskaldunizados deben utilizar la lengua en el servicio.»**

salatu behar dut. Euskal administrazioaren hizkuntza-normalkuntza prozesuak zailtasun asko ditu, eta gainera honelako jokaerak ikusi behar!

Osakidetzara pasatuz, bere azkenengo oposizioetan inolako gutxieneko hizkuntza ezagupen-mailarik ez zuela eskatzen salatu du hainbatek. Salatzaileek arrazoia zuten, baina ez arrazoi guztia! Osakidetzako euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen ez den bitartean, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak ezartzea indarrean dagoen araudiaren aurka joatea izango litzateke. Edozein modutan ere, Osakidetzak dagokion Dekretua prestatu du eta Aste Santua baino lehenago indarrean egongo dela aurreikusten da.

Amaitzeko, zera esan behar dut: azken bi hamarkada hauetan Administrazioak euskararen normalkuntzaren alde lan asko egin du, baina egiteke dagoen lana oso handia da oraindik: euskara ikasten egon diren herri-langileek lanean benetan erabili behar dute, euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere bihurtuz; erabilitako euskararen kalitatea lantzen jarraitu behar da, hizkera argiaren bidetik; terminologia garatu eta hobetu behar dugu, etab. Hainbat dira arlo honetan egin ditzakegun eta egin behar ditugun gauzak!

### CALENDARIO AÑO 2003

#### ORGANOS RECTORES



#### Otsaila

- 13: Saileko Lehendakariaren bilera. Donostia
- 14: Batzorde Eragilea. Donostia

#### Martxoa

- 14: Batzorde Eragilea. Baiona
- 14: Batzorde Akademikoa. Baiona

#### Apirila

- 11: Batzorde Eragilea

#### Maiatza

- 16: Batzorde Eragilea. Donostia
- 24: Batzar Nagusia. Donostia

#### Ekaina

- 20: Batzorde Eragilea

#### Uztaila

- 18: Batzorde Eragilea. Gasteiz
- 18: Batzorde Akademikoa. Gasteiz

#### Iraila

- 19: Batzorde Eragilea

#### Urria

- 17: Batzorde Eragilea. Bilbao
- 17: Batzorde Akademikoa. Bilbao

#### Azaroa

- 21: Batzorde Eragilea

#### Abendua

- 19: Batzorde Eragilea. Iruñea
- 19: Batzorde Iraunkorra. Iruñea

### Agenda

#### Febrero / Otsaila / Février

- 15: Asamblea General de Eusko Ikaskuntza Iparralde
- 28: Fin de plazo para las becas Apraiz y Zumalabe
- 28: Cursos por módulos. Se cierran las admisiones

#### Marzo / Martxoa / Mars

- 10: Inauguración de la nueva sede de Eusko Ikaskuntza Iparralde en Baiona
- 15: Fin de admisión de solicitudes para acceder a la plaza de profesor visitante en Oxford

- 25-26: Symposium sobre la vivienda en Bilbao

#### Abril / Apirila / Avril

- 30: Concluye la admisión de candidatos a la beca Eusko Ikaskuntza-Institut d'Estudis Catalans
- 30: Presentación de candidatos al Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral
- 30: Termina el plazo para la admisión de proyectos a los fondos de cooperación transfronteriza

<http://www.eusko-ikaskuntza.org/>